



TOLOSAKO  
UDALA

**OHIKO OSOKO BILKURA**  
**2018.01.30**

Tolosako Udaletxean, 2018ko urtarrilaren 30ean, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 30 de enero de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Ibai Iriarte San Vicente (5. puntuari bertaratua).  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Idazkaria:  
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

**Eguneko gaia zerrenda**

1. Ondorengo akta onartzea: 2017ko abenduaren 27ko Ohiko Osoko bilkurakoa.
2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2017ko abenduaren 1etik 29ra (2017/2.157-2017/2.358).
3. 2017/2184 Dekretuaren berri ematea.
4. Mozioa: Minority Safe-pack herritar ekimena.

**Orden del día**

1. Aprobación de la siguiente acta: Sesión ordinaria del 27 de diciembre de 2017.
2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 29 de diciembre de 2017 (2017/2.157-2.538).
3. Dar cuenta del Decreto 2017/2184.
- 4.- Moción: Iniciativa ciudadana Minority Safe-pack.



TOLOSAKO  
UDALA

5. Galderak eta eskaerak.

5. Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

**1. Ondorengo akta onartzea:**  
**2017ko abenduaren 27ko Ohiko**  
**Osoko bilkurakoa.**

**1. Aprobación de la siguiente acta:**  
**Sesión ordinaria del 27 de**  
**diciembre de 2017.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.

**2. Alkatetzako dekretu hauen berri**  
**ematea:**  
**2017ko abenduaren 1etik 29ra**  
**(2017/2.157-2017/2.358).**

**2. Dar cuenta de los decretos**  
**emitidos por la Alcaldía del 1 al 29**  
**de diciembre de 2017 (2017/2.157-**  
**2.538).**

Alkatetzak 2017ko abenduaren 1etik 29ra bitartean (2017/2.157-2017/2.358) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**3. 2017/2184 Dekretuaren berri ematea.**

**3. Dar cuenta del Decreto 2017/2184.**

Idazkariak 2017/2184 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

### **ALKATEAREN DEKRETUA** **ZK. 2017/2184**

*Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko  
alkate-lehendakariak emana.*

*Emitido por Olatz Peon Ormazabal,  
Alcaldesa del Ayuntamiento de Tolosa.*

*2015ko uztailaren 28an, 1.278/2015  
zenbakidun Alkatetza Dekretuaren  
bitartez, Gobernu Batzarraren eskuetan  
jarri ziren honako arlo hauetako eskumen  
batzuk: obrak, zerbitzuak, plangintza  
ekonomikoa, pertsonala, etab.*

*Mediante Decreto de Alcaldía nº  
1.278/2015, de 28 de julio de 2015, se  
acordó delegar en la Junta de Gobierno  
diversas competencias en materias de  
obras, servicios, planificación económica,  
personal, etc.*

*Halere, 2017ko azaroaren 2ko  
Hezkuntzako sailburuaren Aginduak, non  
hezkuntza-administrazioaren mendeko  
ikastetxeak dauden udal jabetzako*

*Ahora bien, ante la urgencia impuesta por  
la Orden de 2 de noviembre de 2017 de la  
Consejera de Educación, por la que se  
convocan ayudas a la financiación de los*



TOLOSAKO  
UDALA

*eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko deialdia (Udalaguntza-2017) iragartzen den larritasuna kontutan izanik eta agindu horretan ezarritako gehieneko data baino lehenago Gobernu Batzarra berriro bilduko ez denez, beharrezkoa da "Rehabilitación cubierta de las aulas en Samaniego Ikastetxea HLHI" egin behar diren obrak onartzeko eskumena abokatzea.*

*gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la Administración educativa (Udalaguntza-2017) y teniendo en cuenta que la Junta de Gobierno municipal no va a reunirse antes de la finalización del plazo fijado en dicha orden, es necesario avocar la competencia para la aprobación de las I obras consistente en "Rehabilitación cubierta de las aulas en Samaniego Ikastetxea HLHI".*

Ondorioz, Alkatetzak

En base a ello, esta Alcaldía

**ERABAKI DU:**

**RESUELVE:**

**Lehena.-** 2015ko uztailaren 28ko 1.278/2015 Dekretuaz emandako eskumenak abokatzea, aipatzen diren obrak egiteko.

**Primero.-** Avocar la delegación de competencias contempladas en el Decreto nº 1.278/2015, de 28 de julio de 2015, en lo que a la aprobación de las referidas obras.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta ebazpenaren berri ematea Udalak egiten duen lehenbiziko osoko bilkuran.

**Segundo.-** Publicar esta resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, dando cuenta de la misma en la próxima sesión plenaria del Ayuntamiento.

Tolosan, 2017ko abenduaren 11n

Alkatea

Nire aurrean,

Idazkaria

Olatz Peon Ormazabal

Begoña Garmendia Vázquez

Beraz, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4. Mozioa: Minority Safe-pack herritar ekimena.**

**4.- Moción: Iniciativa ciudadana Minority Safe-pack**

Parte-hartzeak:

.. Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): "Mozio hau tresna bat da Europar Batasunen mahaian herritarren ekimenak bultzatzeko eta sustatzeko, ez da instrumento erreza lantzeko, ez kudeatzeko, ezta helburuak lortzeko ere. Eskatzen



TOLOSAKO  
UDALA

*ditu mila milioi sinadura zazpi estatu ezberdinetan, eta ez hori bakarrik, lehendabizi batzordeak erabaki behar duelako ekimen hori sartzen dela Batasunen eskumenen esparruan eta askotan atzera botatzen ditu berak esaten duelako ez direla sartzen. Horixe gertatu zen ekimen horrekin. Eta ekimenaren bultzatzaileek Estraburgora jo behar izan zuten. Estraburgok arrazoia eman zien, Batasunak bazuela eskumenik jarduera esparruetan eragiteko. Hain zuzen ere, eskatzen da Europako hizkuntza dibertsitatea zaintzea eta babestea. Mozioan ondo azaltzen dira zeintzuk diren arrazoiak. Zenbait tokietan gurean bezala, babes eza, errekonozimendu maila handia daukagu, baina beste zenbait tokietan ez. Guri eragiten dizkigun kontuak azaltzen dira zortzigarren puntuan, mugaz gaindi hizkuntza gutxietan edukia jasotzeko eskubidea oso inportantea da. Izan ere, eman dezagun Ipar Euskalerrian egiten dela euskerazko programa bat Euskal Telebistarako. Internetetik emititzen dena, printzipioz, ezin izango genuke ikusi, mugatuta baitago estatuen baitan, aukera ez litzateke egongo ikusteko blokeatutako dagoelako geografikoki. Hori da eskatzen dena, horrelakoak ebitatzea, bestela bi aldiz ordaindu behar da egile eskubideak. Horrelako gauzak, momentu honetan erabakitzen ari dira, ez da bakarrik zorabiako gutxiengo horri eragiten dion gauza bat, baizik baita euskaldunoi eragiten diona, horregatik daukagu interesa horrelako ekimenak babesteko. Horregatik EHBilduk proposatu genuen EAJ taldearekin batera mozio hau hizkuntza batzordean eta babesten dugu, elkartasuna eta baita ere gure interesak zenbait alorretan.”*

... Alkatea:”Mozio honekin Europako hizkuntza gutxiagotuen sustapena aldarrikatu nahi da. Europako estatuarik ez diete behar den aitortzarik ematen bere eremuko hiztunek erabiltzen dituzten hizkuntza gutxiagotuei. Adibiderik garbiena ondoko Frantziako estatuan dugu ,non bestek beste, euskaraz ez duen aitortza ofizialik. Hori esanda ez dugu zuritu behar Espainiako administrazioaren jarrera. Euskadin ez baitu inolako ahalegin esanguratsurik burutu herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean. Badu zer egina, besteak beste, Espainiako gobernuko ordezkarietan, Correosen, justizia arautzen duen legedian, asko du egiteko. European jatorrizko 80 hizkuntza mintzatzen dira eta eta mozio honen bidez neurriak hartu nahi dira hizkuntza gutxiagotuak babesteko eta sustatzeko .Gure obligazioa da euskara gure hizkuntza denez bide hori jarraitu nahi duten beste hizkuntza gutxiagotutako hiztunei babesa eskaintzea. Horretarako dakarkigu proposamen hau onartu izan dadin, euskarak biziraupena bermatua badu ere, bizindarra ez du bermatua erabilera esparru sozial guztietan ez du bermatua besterik gabe etorkizunean. Beste hizkuntza askok biziraupena ere kinka larrian dute, lagundu eta babestu ditzagun mozioa hau onartzuz.”

-----

Idazkariak 2018ko urtarrilaren 25eko Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordearen proposamena irakurri du. Honelaxe dio:

**“Minority Safe-pack ekimena babestea eta sustatzea**

*European 80 bat jatorrizko hizkuntza mintzatzen dira. Horietako batzuk ofizialak dira eta beste batzuk ko-ofizialak, baina gehienek ez dute estatus ofizialik. Ondorioz, Europako hizkuntza askok ez dute babes legalik eta arriskuan dago beraien biziraupena. Europako Batasunaren oinarritzko printzipioetan hizkuntza- eta kultura-dibertsitatea*



TOLOSAKO  
UDALA

*babestea dago, bere lemak dioen moduan: in vatietate concordia. Hale ere, Europako Batasunak printzipio horien babesa eta sustapena Estatu enpe uzten du. Estatu guztiek ez dute jokamolde bera eta hizkuntza asko babesik gabe dago. Europako Batasunaren mailako lege-neurri amankomunen faltan, estatu bakoitzaren borondatearen eta izpiritu demokratikoaren kalitatearen araberakoa izango da hizkuntzen babes-maila.*

*Europako Batasunak gutxiengo hizkuntzak eta kulturak babesteko lege-garapen eta neurri minimo amankomun batzuk antola ditzan, Europako hainbat gizarte-eragilek 'Minority Safe-pack' izeneko herritarren ekimena bultzatzen ari dira. Ekimenak 1.000.000 bat sinadura bildu beha ditu Batasuneko 7 estatu desberdinetan gutxienez 2018ko apirilaren 3a baino lehen eragina izan dezan.*

*Hauek dira Europako Batasunari egiten zaizkion eskakizunak:*

- 1- EBak Estatuari gomendatzea hizkuntza- eta kultura-dibertsitatea babestea eta sustatzea.*
- 2- Finantziario-programak abiatzea hizkuntza-komunitate gutxituentzat.*
- 3- Hizkuntza Dibertsitatearen Zentroa delakoa sortzea.*
- 4- EBren erregio-garapenerako funtsen helburuetan, gutxiengo nazionalen babesa eta kultura- eta hizkuntza-dibertsitatearen sustapena aintzat hartzea.*
- 5- Gutxiengoek gure gizartei eta Europari ematen dioten balio erantsiari buruzko ikerketa egitea.*
- 6- Estaturik gabeko gutxiengoentzat estrategia konpartitu eta zeharkakoak bultzatzea.*
- 7- Europako copyright lege bateratu bat, kultur zerbitzuak eta emanaldiak norberaren ama-hizkuntzaz eskuratu ahal izateko.*
- 8- Ikus-entzunezko edukiak mugaz gaindi hizkuntza gutxituetan eskaintzeko eta jasotzeko zerbitzu-askatasuna.*
- 9- Gutxiengo kulturaren eta ondarearen adierazpideak eta komunikabideak estatu-laguntzen arautegitik salbuestea.*

*Ekimenaren aldeko sinadura Internet bidez eman daiteke helbide honetan: <http://www.minority-safepack.eu/main/index>.*

*Horiek guztiak kontuan hartuta Tolosako Udalak honokoa erabaki du:*

- 1. 'Minority Safe-pack' delako herritarren-ekimen europarra bere egitea, babestea eta sustatzea.*
- 2. Herritarrei eskatzea 'Minority Safe-Pack' ekimena sina eta heda dezaten.*
- 3. Udal batzaren erabaki hau herriko komunikabideen eta udaleko sare sozialetako kontuen bidez iragartzea.*
- 4. Europako Batzordeko lehendakaria erabaki honen jakitun egitea."*

*Batzordeak, aho batez, mozioaren aldeko irizpena eman du, Udalbatzak erabakia har dezan."*

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia



TOLOSAKO  
UDALA

Belloso, Patxi Amantegui Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Maria Lasa Arruabarrena, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Minority Safe-pack ekimena babestea eta sustatzea.

## **5. Galderak eta eskaerak.**

## **5. Ruegos y preguntas.**

... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE) zinegotzia: *“Dakizuenez, gaur arratsaldean Afagi Alzheimer Tolosaldea erakundeak bere lehenengo ekitaldia ari da ospatzen Tolosako Kultur etxean eta hemendik nire babesa osoa eskaini nahi diet.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Aipatu nahi dut aurrekoan Hizkuntza Politika eta Hizkuntza batzordean irizpide izan genuen gai bat, Orixe Institutuaren eraikin berriaren gaia. Lehenik eskertzen dut batzorde hartan Jokin Azkuek eman zuen informazio zabal eta sakona eta adierazi nahi dugu EHBilduk bere indar guztiak egingo dituela Orixe eraikinaren aferan denen interesean eta gustora konpontzeko. Badakigu gai zaila dela, ertza asko dituela eta denok traineru berean jarri beharko duela noranzko berean arrauna. Momentu honetan eskuartean manejatzen den irtenbideari buruz badauzkagu gure kezka. Badakigu ere irtenbide posible guztiek bere arazo eta problemak dauzkatela baina iruditzen zaigu mahai gainean jartzen ari dena eta datorren otsailaren 15ean Hizkuntza sailarekin egingo den bileran komentatuko dena badituela arazo guretzat inportante batzuk. Batzordean azaldu ditut eta nahi ditut berriz ere hemen azaldu. Lehena da kokaera bera. Eraikina egin nahi da momentu honetan baratza dauden toki horretan. Baratza hazitegia ekimen berritzailea da, orain dela hiru urte hasi zena, pentsatzen duguna jarraipena izan behar duena eta eta momentu honetan burutzen ari den jarduerak enplegua sortzen duena. Baina etxe bat egiten bada horiek dauden tokian ez ditu baldintza legal guztiak beteko etxe horrek ekipamendu bezala aurreikusita dago Plan Orokorrean, ordezeko toki egoki bat bilatuko beharko litzateke. Hori da kezka bat. Beste kezka bat da, toki bera ez ote dagoen N-1etik gertuegi. Zarata eta sarrerak eta irteerak nola kudeatuko diren e.a. Bestalde, ulertzekoa da hor bertan egiten bada eraikin berri hori, orube hori libre geldituko da eta gure kezka da zertarako izango den. Ez genuke egoki ikusiko bertan aparkamendu plazak atera eta kotxeentzat bakarrik geratzea. Horrek momentu batean konponduko luke han dagoen arazoa, hau da aparkatzearena, baina bi urtera berriro egoera berean egongo ginateke. Gure kezka da agian konponbide hori Jaurilaritzaren ikuspegitik errexena izango dela, baina Tolosaren ikuspegitik ez interesgarriena. Gure iritziz, interesgarria izango zen orain dagoen toki berean berria eraikitzea. Badakigu seguruenik konplikatuagoa izango dela horren kudeaketa bitartean ikasleak nonbaiten kokatu behar direlako baina Tolosako ikuspegitik interesgarriena. Kezka hori agertu nahi dugu, argi utzita gure borondatea da babestea eta aurrera eramatea ahalik eta azkarren ematea.”*





- ... Alkatea: "Kezka horiek ere azaldu ditugun izan diren bileretan. Irtenbidea, orain arte bezala, izango da Hezkuntza sailak adierazten duenarekin baita Samaniego ikastetxeko zuzendaritzaren iritzia kontutan hartuta eta baita Udalak mahaigaineratutakoarekin. Orain arte horrela egin dugulako. Baratzak komentatu dituzu. Eraikin berriaren enplazamendua edo kokapena derrigorrez hor joan beharko balu ordezeko tokia bilatu beharko genuke. Bai adierazi, bihar bertan, Landaolak ematen diola baratzen proiektuari sari bat. Beraz, begi bistan dago gaiaren garrantzia nahiz eta, une honetan baratzak esleipenean emateko atera eta oraindik inor aurkeztu ez. Bestalde, aipatu den bezala, otsailaren 15ean egingo den bileran parte hartzen dugu Hezkuntza sailak, zuzendaritzak eta baita Udalak ere. Samaniego egiten ari den bidea lehen Laskorain ikastola egindako bidea da, obra baten eraginez, obra irauten duen bitartean ikasleak birkokatu egin behar dira, hori da zailtasuna eta bide horretatik dihoa ere Samaniego ikastetxea. Zorionez, Hezkuntza sailak bere aurrekontuetan jasota dauka diru bat eraikin berria egiteko. Baina bai jasotzen dugu eta erabat bat ados adierazi duzunarekin."
- ... Peio Etxabe Zabala (EHBildu): "Aurreko plenoan aurrekontu inguruan komentatu genuen EHBilduk egoki ikusten zuela Usabalgo 3. faserako azterketa teknikoa burutzea Tolosan beharren arabera. Kirol taldeekin hitz eginez azterketa bat egin behar horiek asetzeko. Hurrengo egunetan, azaldu zen prentsan balorazio egiteko garaian hori hurrengo legealdirako geratuko zela bezala. Igande honetan, berriz, Gobernu kide eta Kirol batzordeburua denak prentsan esan zuen hori legealdi honetan burutu beharrekoa zela. Beraz, kontraesanak ikusten ditugu eta behar bada garaia da Kirol batzordetik lantzen hasteko guk proposatu genuen bezala hasiera batean."
- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): "Esaten duzun bezala, aurrekontuen plenoan hori esan zenuten. Gero, ni agertu nintzen prentsan aurtengo legealdian egin beharko zela. Taldeekin hitz egiten hasi gara orain dela gutxi eta hurrengo batzordean informazio emango dugu."
- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): Aurreko plenoan, Udaltzaingoaren ordezkapenak betetzeko dauzkagun arazoaren harira, Arkautekin hitzarmena sinatzea proposatu eta onartu zenuten. Oker ez bagaude, badirudi, lan poltsa hori hutsik dagoela. Adierazi nahi genuen gure kezka eta ea hemendik aurrera zer. Pleno horren bozeramaileen bileran aipatu zen ere. Abenduan egin genuen Personal batzordean Komitetik azaldu zitzaigun zalantza zegoela jendea egongo ote zen lan poltsan eta praktikara ekarrita ikusi da benetan ez dagoela. Orain kezka eta arriskua askoz handia dago, Inauterietako atarian gaudelako. Abenduan baino egoera okerragoa da. Herritarren babesa bermatu beharra dago eta daukagun Udal langileekin bete behar delako. Gure beste kezka ere da langile horien lan baldintzak ere bermatu behar direla. Ez dakit ze asmoa duzuen eta gogoratuarazi nahi dizuet lehentasuna du gai honek. Nahiz eta lan hitzarmena hau sinatu urteko sei hilabete hauetan Udalak lan poltsa propio bat eratu behar zuela eta bide horretatik jo beharra daukagu, zailtasun zailtasun. Pentsatzen dut zuek ere kezka bera izango duzuela eta egoeraren larritasuna handia dela."
- ... Alkatea: "Bai horrela da. Arkauteko hitzarmena sinatu zen ordezkapenak egiteko eta beste herrietako zerrendetatik tiratzeko zailtasunak zeudelako. Kudeatu zen ere herrian beste zerrenda bat baina ez zen soluzionatu. Horregatik erabaki zen



*Arkautekin hitzarmena sinatzea. Non sinatzeko puntuan geundenean, oraindik ez da formalizatu. Erabaki dugu baina formalizatu gabe dago oraindik. Arkauteko zerrenda ere hutsik dago. Arazoak daude, herri askotan galdetu dugu beste udalerrri askotan ea beste herrietako zerrendatik tiratzeko aukera badagoen. Orain arte ez dugu aukerarik topatu. Momentu honetan zortzi langile daude faltan, lau Arkauten eta lau bajaran. Bihar bertan departamentuan bilera dago planteamentua egiteko Egia da egoera hori dela arduratuta gaude eta zerrenda propioa egiteko ere, bihar hitz egingo dute baina eta Udaltzainburuarekin hitzordua hartuta daukat horretaz hitz egiteko baina uste dut nahiko arazo izango ditugula.”*

- ... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Inauterien antolaketaren inguruan kezka azaltzea nator. Lehengoan, Tomas Hernandezen omenaldian, Antxon Elosegui hitza hartu zuen eta historia egin zuen, Inauterien antolaketan eliza kontra zegoenean eta Udala kontra ez baina alde ere batez eta garai hartan nola sortu ziren Comisión de Festas izenekoak eta hortik CIT, nola hasi ziren Inauteriak antolatzen. Gero hamarkada batzuetan Comisión de Fiestas txertatu zen Udalean, Festa batzorde bezala eta horrela funtzionatu du legealdi honetara arte. Zuek Festa batzordea kendu eta Jai bilerak egingo zenituela esan zenuen bai Inauteri eta bai Sanjoan antolaketarako. Aurten Inauterietan, gaur gaurkoz, ez da inongo jai bilerarik egin. Nuriak, Festa eta Kultur zinegotziak egin ditu, baina Karrozakoekin, Konpartsetakoekin, lehiaketan parte hartzen dutenekin eta ez da inongo bilerarik egin non herritarrek egon zitezkeen. Edozein festa antolaketan, edozein herritar joan zitezkeen Inauteriei buruz bere idea bota edo gauzak aldatzeko, edo bere iritzia emateko. Herritarrez aparte gu zinegotziok eta batzorde horretarako kideok ez gara izan gonbidatuak bilera batera ere. Gaur gaurkoz, Inauterietako programa dakigu web orrian zintzilikatuta dagoelako. Aurrekontuaren berri ere ez dakigu. Beno baten batek esan du etxean jaso duela programa eta azaltzen dela. Uste dut, hemen gaudenok, herri honetako zinegotziok ere bagarela eta jada San Joanak igaro zirenean esan nuen, hementxe bertan, ezin zirela herri bateko festa batzuk hiru bileretan montatu eta eta zein da nire sorpresa eta Inauterietan iritsi eta ez hiru, ezta bat. Egia da, gaur bertan jaso dut bilera deialdi bat astelehenerako eta puntu bakarrekin eta da sexu erasoen aurrean udalaren bete beharrak. Ez dakit zein izango diren. Ez dago beste punturik. Gainera, orain hamazazpi puntu jarrita ere hurrengo astelehenean kaldereroak pasata daude eta hiru egunetara ostegun Gizona. Programa kalean dago, aurrekontuak ere bai. Eta berriz diot alderdi honetan gauden zinegotziok ez gara izan gonbidatuak inongo bileretara. Beraz, zer ibili behar dugu eragileen atzetik jakiteko zein diren arazoak? Azkenengo Kultura, Festak eta Gazteri batzordea izan genuen hil honen 22an eta Inauterietako lotutako puntu bakarra zegoen, Karroza eta konpartsa lehiaketako oinarrien proposamena. Ekarrirako proposamena adostuta zegoen karrozetakoekin baina gu ez gara egon bilera horietan, guri ekartzen zaizkigu oinarri batzuk eta bileran ez gara egon. Honekin jarraituz, aurten Usabalgo pabiloiaren giltzak abenduaren 26an eman ziren, Ferialekoak urtarrilaren 11n eman ziren. Normalean, beti, martxan jarri da Feriala eta Pabiloia abenduaren hasierako zubirako. Eta kontuan izan behar da, gainera, aurten Inauteriak oso goiz direla, beraz, tarte oso motza izan da. Bestaldetik, gure harridurako Inauterietako programa kanpoko enpresa batek egin du. Gaur irakurri dut Facebook-en egindako komentarioen artean, izena ezaguna egiten zitzaidan baina... : ““hori, konkurtso bitartez egiten da eta Tolosako konkurtso batean Leongo enpresa batek parte hartu dezake””. Baina gauza da hau konkurtso batez ez dela egiten, gonbidapen bitartez egiten da, izan ere, kostua zero*





da. Egiten duenak bera finantzatzen duelako publizitatearekin. Udal gobernuak erabakitzen du nori gonbidatzen zaion parte hartzea. Tolosatik kanpoko bati egiten zaio gonbidapena eta hark irabazten du. Ulertzekoa da konkurtsoaren bidez egiten bada, aukera daukatela kanpoko enpresak aurkezteko, baina gonbidapena dena mugatu dezagun herrira, Tolosara. Batzordean aipatu nuenean hemen esandakoak batzordeburuarengandik jaso nuen erantzuna izan zen "bale". Uste dut gehiago merezi dugula. Hala ere, haserre egonagatik, ez nuke horrela bukatu nahi, badakit Inauterizale bezala Inauteriak aterako direla arazo guztien gainetik, beti atera direlako eta aurten ere bai. Beraz, ondo pasa Inauteriak."

- ... Alkatea: Egia da, Festetako batzorderik zure garaian ardura zenuenean bezala ez dela eman, lan bilerak egin dira, Aurten bereziki, bai Karrozak, baita konpartsakoekin. Dakizuen bezala Delta pabiloian sutea izan zen eta beste pabeloi bat alokatu du Udalak. Baldintzak aldatu dira, arautegi bat onartu da, inoiz egon ez dena, eta hori dena gauzatu da gazteekin elkarlanean, gazteak eta ez hain gazteak, Konpartsa eta Karrozetako pertsonekin. Aldaketak handiak dira eta espero dut, seguru nago, denak onerako izango direla. Gainera, etorkizunean egongo gara beste segurtasun maila batean, bai sute baten aurrean edo beste motetako gertaeraren aurrean. Arautuko dira bakoitzak hartuko dituen ardurak, bai Udalak, bai pabiloiaren erabiltzaileak. Denok jabetzen gara, neurri batzuk hartu eta lanean hasten gara. Egin behar genuenean lehenengo bilera neurri horiek adierazteko, ni neuk deitu nizun telefonoz. Hori lan bilera bat zen, eta ordu horretan ezin zenuela bertaratu erantzun zenuen. Lan bilerak ezin ditugu moldatu oposizioaren ordutegiaren arabera. Batzordeak bai eta, gainera, erabat mugitzen ditugu norbaiten ezin duenean. Baina lan bilerak ezin ditugu horrela moldatu. Horrek izan du lan bat oso mardula eta zoriondu egin nahi diot Nuriari egin duen lan horrengatik. Astelehenean egin den bilera izango da Inauterietan parte hartze duten eragile guztiekin sanjoanetan egiten den modura. Orain arte ez da inoiz egin modu horretara. Eta egia da, deialdiak jartzen du Sexu erasoaren aurrean. gaiak jartzen du Inauteriak. Gaia da Inauteriak egitea Sanjoanetan egiten den bezala, bakoitzak egunean zehar egin behar dituenak mahaigaineratu, nola koordinatzen den jakiteko eta horretaz gain, horrelako gertakari balitz azaltzea ze protokoloak dauden onartuta udaletxean eta denak saretuta egotea gertakari bat balitz, batera erreakzionatzeko indarrarekin. Baina gai bat da Inauteriak eta bestea bestea. Giltza berandu ematearen arrazoia da nahi izan dela baldintzak lotzea. Emateko garaian, legez jarri beharreko baldintzak nahi izan dugu mahaigaineratu, adostu gazteekin eta elkarlanerako bidea egin eta horrek atzeratu du. Egia da berandu dela, Inauteriak azkar direla. Gazteak ere esan dute : "" karrozak ez badaude beste urteetan bezala apainduta zuen errua izango da.""
- Bestalde, programaren kontua. Programa egin duen enpresa hau ez da Tolosakoa. Baina enpresa honek parte hartzea eskatu zuen, deitu egin zuen eta informazio eskatu. Ezin zaio ukatu eta ematen zaio eta aurkeztu denean, txosten teknikoak dio proposamen onena berea dela. Hori da gertatu dena. Baina esan duzunari gehitu nahi diot disgustu txiki bat ere badaukadala. Nik ere sarean ere ikusi dut jartzen den propaganda, zuk aipatu duzu propagandaren truke egiten dela programa. Propaganda orain arte, beti, herriko merkatariena izanda. Eta aurten, eta gainera kontraportadan, plataforma handi baten propaganda dago. Hori ere, iruditzen zait hanka sartze bat izan dela. Izan ere, Udalak tokiko merkataritza babesteko egiten duen lanarekin konturatu ez izana horrelako gauza gertatu zitekeela! Orain arte ez da zehaztu programan azaltzen den propaganda



TOLOSAKO  
UDALA

*herrikoarena izan behar duenik, baina hemendik aurrera proposatzen dut baldintza hori jartzea.”*

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Ez zenidan deitu, korreo bat iritsi zitzaidan, telefonoz ez zen izan. Berdin da. Udaletxe barruan Inauteriak landu egiten dira udaleko lan ordutegietan egiten dira eta nire lana dela eta ezin izan dut etorri. Baina hori da gauza bat eta bestea da orain deskubritu duguna. Lehen Festa batzordeak ziren, orain dauzkagu jai bilerak eta Lan bilerak. Lan bilerak beti egon dira. Lehen Festa batzordea zena orain Jai bilera deitzen diozun hori irekiak izan behar dute. Eta San Joan eta Inauteriak ez dira inondik inora berdinak. Eta zuk esan duzu astelehenean egingo dugun bileran Inauterietan inoiz ez bezala Sanjoanetan bezala. Inauteriak oso ezberdinak dira, koadrilan, banaka, apuntatu gabe, karrozan, oso inportantea da Inauterietan mantentzea Jai bileraren figura hori. Ez dut esaten ez duzuenik landu, nik ere esan dut nola Nuria egon den konpartsa, txaranga eta e.a.ekoekin, baina Jai bilerak egin behar dira. Bertan, edozeinek eman dezake bere iritzia Inauteriei buruz, informazio jaso, bietara izan behar du. Udalak bilera horietan informazioa eman behar du eta jaso. Gu ez gara inongo bileretara gonbidatuak izan.”*

... Alkateak: *“Gai honekin bukatzeko. Ez zarete gonbidatuak izan ez direlako egin Jai bilerarik egin. Egia da, onartzen dizut kritika. Jai bilera egin beharko litzateke. Nahiz eta gaiak oso landuak izan eta nahiz eta herriak baduen aukera Kultur zinegotziarekin egon eta Kultur Etxera joateko aukera izan, gainera, Jai koordinatzailea ere buru-belarri dabil horretan. Egia da jai bilerak egin behar ziren.”*

Besterik gabe, 21:00etan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, idazkari naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA